

<b>2007KO MARTXOAREN 30EAN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA</b>  =====	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 30 DE MARZO DE 2.007.</b>  =====
<b><u>BILDUTAKOAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Iñaki Zarraoa Zabala Jn.

<b><u>ALKATEORDEAK</u></b>	<b><u>TENIENTES DE ALCALDE</u></b>
----------------------------	------------------------------------

Imanol Landa Jauregi (EAJ-PNV)  
José Manuel Etxebarria Gangoití (EAJ-PNV)  
Fernando Burzako Butron (EA)  
Iñaki Urkiza Arana (EB-B.)  
Guzmán Aranaga Gaztañaga (EAJ-PNV)  
Andrés Uriarte Garmendia (EAJ-PNV)

<b><u>ZINEGOTZIAK</u></b>	<b><u>CONCEJALES</u></b>
---------------------------	--------------------------

Begoña Ezkurra Ciruelos (EAJ-PNV)  
Elena Coria Yanguas (EAJ-PNV)  
Iñaki Gerediaga Goikolea (EAJ-PNV)  
Gorka Uribe Cabello (EAJ-PNV)  
José Ramón Bilbao Azkue (EA)  
María Luisa Arrue Bergareche (P.P.)  
Jesús Toca Toña (P.P.)  
Mercedes Pérez Ducloux (P.P.)  
Carlos Aranguren Echevarria (P.P.)  
Eduardo Andrade Aurrecochea (P.P.)

Carlos Castellanos Peña (P.P.)  
Juan Luis Eguiluz Borde (P.P.)  
Rafael Moreno Martín (P.P.)  
Raquel González Díez-Andino (P.P.)  
Luis Almansa Rubio (P.S.E.-E.E.)  
Gotzone Mora Temprano (P.S.E.-E.E.)  
Ricardo Villanueva Marcos (P.S.E.-E.E.)  
Aitor Lafuente Calderón (E.B.-B.)

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Iñaki Zarraoa Zabala jauna dela, egun horretako goizeko hamarretan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita Behin-behineko Kontu-hartzailea, Luis Angel Corcuera Ruiz jauna, ere.

Jasota gera dadila Rafael Moreno Zinegotzia 52. puntuan batu dela bilkurara.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio.

Eguneko aztergaien zerrendako gaiak eztabaidatzen hasi baino lehen, Alkateak hiru elkartek parte hartzea eskatu dutela adierazi du, elkarteek bai ohiko bilkuran, bai ohiz kanpokoan eguneko aztergaien zerrendako zenbait puntutan parte hartu nahi dute.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Iñaki Zarraoa Zabala, se reunió a las diez horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más el Sr. Interventor municipal don Luis Angel Corcuera Ruiz.

Se hace constar que el Concejel Rafael Moreno se incorporó a la sesión en el punto nº 52.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión

Antes de iniciar el tratamiento de los asuntos del orden del día, el Alcalde indica que tres asociaciones han solicitado tomar parte en diferentes puntos del orden del día, tanto del Pleno ordinario como extraordinario, invocando el artículo 154 del

Arautegi Organikoko 154. artikuluan oinarritu dira eskaera egiteko. Horren arabera, elkarteek alde zuzenetik Alkateak baimena ematen baldin bada, aztergaiko puntu batean parte hartu dezakete, aurreko espediente administratiboan interesatu gisa parte hartu baldin badute, eta Idazkaritzak egoera hori ez dela gertatu jakinarazi duela kontuan hartuta, aipaturako parte hartzeari ezezkoa emango zaio, baina, hala ere, galdera eta eskaeren atalean parte hartu dezakete.

Deialdiko Aztergaien Zerrendaren barruan jasota dauden gaiak helburu diete. Emaizta honakoa izan da:

**43.- 2007KO OTSAILAREN 23KO BILKURA ARRUNTEKO AKTA ONESTEA, BIDEZKOA BADA.**

Getxoko Udaleko Udaltzako 2007ko otsailaren 23an egindako ohiko osoko bilkuraren akta onetsi da aho batez.

**OGASUN, EKONOMIA, GIZA BALIABIDE ETA KONTUAK**

**44.- 2007ko 941, 942, 1.393 eta 1.439 DEKRETUEN BERRI EMATEA, TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDATZEARI BURUZKOAK.**

Reglamento Orgánico que indica que las asociaciones pueden, previa autorización del Alcalde, intervenir en un punto del orden del día, si han participado en el expediente administrativo previo en calidad de interesados, y que teniendo en cuenta que por parte de la Secretaría se ha informado que esta situación no se ha dado, se va a denegar la participación, sin perjuicio de que pueden hacerlo en el apartado de ruegos y preguntas.

Seguidamente se pasó a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**43º.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 23 DE FEBRERO DE 2007.**

Se aprobó por unanimidad el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 23 de febrero de 2007.

**HACIENDA, ECONOMÍA, RECURSOS HUMANOS Y CUENTAS**

**44º.- DACIÓN DE CUENTA DE LOS DECRETOS NÚMS. 941, 942, 1.393 Y 1.439 DE 2007, SOBRE MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Transferentzien bidez aurrekontua aldatzeko Alkatetza-Udalburutzak eman dituen dekretu hauen jakitun geratzea:

941 Dekretua, 2007ko otsailaren 20koa, 400,00 €koa.

942 Dekretua, 2007ko otsailaren 20koa, 90.000,00 €koa.

1.393 Dekretua, 2007ko martxoaren 5koa, 242.941,18 €koa.

1.439 Dekretua, 2007ko martxoaren 9koa, 308.000,00 €koa.

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados de los siguientes Decretos de la Alcaldía-Presidencia, de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias

Decreto nº 941 de 20 de febrero de 2007 por un importe de 400,00 €

Decreto nº 942 de 20 de febrero de 2007 por un importe de 90.000,00 €

Decreto nº 1.393 de 5 de marzo de 2007 por un importe de 242.941,18 €

Decreto nº 1.439 de 9 de marzo de 2007 por un importe de 308.000,00 €

**45.- 2006KO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA ONESTEKO 1.301/2007 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA.**

Proposamenaren berri eman ondoren, Andrade jaunak parte hartu du, eta likidazioan Udalak dirua nola bildu eta gastatu duen jasota dagoela adierazi du, eta aurkeztu denaren arabera, Gobernuaren taldearen kudeaketa negargarria izan dela aditzera eman du. Datu gisa honako hauek aipatu ditu: diru-sarrerak 108 milioi eurora iritsi dira, baina EIOZ-ren diru-sarreren aurreikuspena %40 jaitsi da eta irekitzeko lizentzia %80. Bestalde, Zaborraren Tasa %60 igo da eta biztanleei Gobelako bideentzako prezio altuagoak jarri zaizkien arren, bertaratze eta abonatu ondotzko diru-sarrek behera egin dute. Urtebetean soilik, sei milioi euro batzeari utzi dela eta horietatik, 3,5

**45º.- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO NÚM. 1.301/2007 SOBRE APROBACIÓN DE LA LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO GENERAL 2006.**

Tras darse cuenta de la propuesta, interviene el Sr. Andrade que indica que la liquidación recoge cómo se ha recaudado y gastado el dinero por parte del Ayuntamiento, y de la que se presenta se deduce una nefasta gestión del equipo de Gobierno. Expone como datos que los ingresos han llegado a 108 millones de euros, pero que se ha reducido la previsión de ingresos del ICIO en un 40% y del de las licencias de apertura en un 80%, mientras que se ha incrementado la Tasa de Basuras en un 60% y que pese a haberse cargado a los vecinos con mayores precios para acceso a Gobela, los ingresos derivados de asistencias y abonados han descendido. Indica también que en un solo año seis millones de euros han

milioi kobratzeko zail gisa kalifikatzen direla ere adierazi du, eta bere ustez, horrek argi uzten du dirua biltzeko kudeaketa txarra. Gastuari dagokionez, Erakunde Autonomo batzuen langileen gastua hazi dela adierazi du, besteak beste, Getxo Kirolak eta Kultur Etxearena; orokorrean, gastu arruntak %6 egin du gora eta Alorren aurrekontuak aldatu egin dira, Gizarte-Zerbitzuen Alorraren aurrekontua %4 jaitsi da, Kulturaren alorrekoa berriz, %21 igo da eta Hirigintzako %10. 12,5 milioi euro soberan geratu direla adierazi du eta 2006. urterako Legealdi Planean jasota dauden eta beharrezkoak diren inbertsioak ez direla egin aipatu du, baita lehenagoko garaietatik jasotako obrek gauzatu gabe jarraitzen dutela ere, baita 2003koek ere, eta hori Getxoko biztanleentzako kalte nabaria da.

Etxebarría jaunak parte hartu du talde Popularreko kidearen diskurtsoa ez dela egia esateko eta errepikakorra dela likidazioko datuak eskaintzen, eta datu horien artean, funtsean, honako hauek nabarmentzen ditu: a) Indarrean dagoen arautegiari buruz; b) Aitortutako eskubideak 74 milioi eurokoak dira, eta horrek aurrekontuaren %90 suposatzen du. c) Aitortutako eginbeharrak 91,2 milioi eurokoak dira, eta horrek aurrekontuaren %84,2 suposatzen du. d) Aurrekontuaren emaitza 10,4 milioi positibokoa da eta Altxortegiko soberakina 8 milioi positibokoa da, eta ez da mailegu formalik erabili, eta bere ustez, horrek kudeaketa bikaina suposatzen du, eta aurrekontuaren ixtea bikain gisa kalifikatu du. Talde Popularraren kritikei dagokienez, diru-bilketa boluntarioa %90,3 eta

dejado de recaudarse y de los mismos, 3,5 millones se califican de difícil cobro, lo que evidencia una mala gestión recaudatoria. Respecto al gasto indica que se han incrementado un 10% los gastos de personal en Organismos Autónomos como Getxo Kirolak y Aula de Cultura; en general el gasto corriente ha subido un 6%, y se han modificado los presupuestos de las Áreas rebajándose un 4% del presupuesto del Área de Servicios Sociales, mientras que se han incrementado en un 21% el del Área de Cultura y en un 10% el de la de Urbanismo. Indica que han sobrado 12,5 millones de euros como remanentes y no se han ejecutado obras e inversiones necesarias recogidas en el Plan de Legislatura para el año 2006 e incluso siguen siguen sin ejecutarse obras recogidas desde épocas anteriores, incluso desde el año 2003, lo que supone un perjuicio notorio para los vecinos de Getxo.

Interviene el Sr. Etxebarria para indicar que el discurso del grupo Popular no responde a la realidad y es repetitivo ofreciendo datos de la liquidación de los que básicamente destaca: a) Respecto a la normativa vigente; b) Los derechos reconocidos ascienden a 74 millones de euros, lo que supone el 90% del presupuesto. c) Las obligaciones reconocidas ascienden a 91,2 millones de euros, lo que supone el 84,2 del presupuesto. d) El resultado presupuestario es de 10,4 millones positivos y el remanente de Tesorería es de 8 millones en positivo, sin haberse dispuesto de préstamos formalizados, lo que supone una magnífica gestión y califica de magnífico al cierre presupuestario. Respecto a las críticas del grupo Popular indica que la recaudación en voluntaria supone el 90,3% y en ejecutiva un 3% lo que

exekutiboan %3 hartzen duela; hau da, guztira %94 dela adierazi du. Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergan borondatezko ordainketa %96,30ekoa dela eta isunetatik dirua biltzea oso zaila den arren, borondatezko ordainketa %40koa dela, eta beste udalerrri batzutan, aldiz, %25ekoa dela azaldu du.

Andrade jaunak eman diren datuak onetsitako likidazio propioetik ondorioztatzen direnak direla erantzun dio, eta Etxebarria jaunari EIOZ eta irekitzeko lizentziatarako aurrez ikusten den diru-bilketa kopurua jaitsi dela egia den ala ez esan dezala eskatu dio, eta biak aberastasunak sortzearen faltaren adierazgarri direla azaldu du. Halaber, Zaborraren Tasa %60 igo izanari buruz esan duena egia den ala ez galdetu dio, baita Getxo Kirolak-en diru-sarrerek behera egin izanari, egin ez diren inbertsioei, merkataritza aktibitatearen jaitsierari, lurzorua ez erosteari eta abarri buruz esan duena ere egia den ala ez galdetu dio.

Etxebarria jaunak Andrade jaunak esan duena ez dagokiola aurrekontuaren likidazioari buruzko eztabaida bati esanez erantzun du, izatekotan, programa politiko bat gauzatzeari buruzkoa dela esan du, eta zentzuzkoa denez, sarritan aurrekontuari buruzko aurreikuspenak errealitatera egokitzeke moldatu egin behar izaten direla adierazi du. Merkataritzaren sektoreari dagokionez, ez direla ixteak gertatzen ari eta kobratzeke geratu diren kopuruak arrazoizkoak direla argitu du, eta kobratzeko zaila izatearen kalifikazioa egin behar arau-emaileen ondoriozkoa dela aditzera eman du. Talde Popularrak lurzorua erosteko inbertsio faltari buruz egin duen kritikari dagokionez, hori dagoen

supone praktikan un 94%. En el IBI el pago en voluntaria asciende al 96,30% y que incluso en aspectos tan difíciles de recaudar como las multas se está en un 40% en voluntaria cuando la media en otros municipios es de un 25%.

El Sr. Andrade replica que los datos que ha ofrecido son los que se derivan de la propia liquidación aprobada, e insta al Sr. Etxebarria a que indique si no es cierto que se han reducido las previsiones de recaudación del ICIO y de licencias de apertura, que son ambos referentes de la falta de generación de riqueza. Así mismo pregunta si no son ciertas las manifestaciones que ha realizado de los incrementos del 60% de la Tasa de Basuras, de la reducción de ingresos en Getxo Kirolak, de las inversiones no realizadas, de la reducción de la actividad comercial, no compra de suelo, etc.

El Sr. Etxebarria responde manifestando que lo indicado por el Sr. Andrade no corresponde a un debate de liquidación presupuestaria sino en todo caso a la ejecución de un programa político, y que lógicamente las previsiones presupuestarias muchas veces han de modificarse para adaptarse a la realidad. Respecto al sector comercial no se están produciendo cierres y que las cantidades pendientes de cobro son razonables, y la calificación de difícil cobro responde a obligaciones normativas. Respecto a la crítica del grupo Popular de falta de inversión en compra de suelo, indica que esto depende de la oferta existente y que no es una cuestión fácil, y que el equipo de

eskaintzaren araberakoa dela eta ez dela kontu erraza esan du, eta Gobernuaren taldea egiten ari dena aurrekontuko dirua gordetzea dela, aukera sortzen baldin bada erabiltzeko.

Andrade jaunak aurrekontuaren likidazioak Gobernuaren taldearen politika islatzen duela berretsi du, eta ondorioz, likidazioari egiten zaion kritika bat, Gobernuaren taldearen kudeaketari egiten zaion kritika bat dela agertu du. Merkataritzari dagokionez, Partidu Popularraren jarrera ez dela negozioak ez ixtea, berriak irekitzea baizik, eta merkataritza aberastasuna sortzea, eta horregatik, talde Popularrak sarritan dendei laguntzeko neurriak aurkeztu dituela, eta Gobernuak neurri horiek ez dituela onartu aditzera eman du. Zortzi milioi euro biltzeari uztea ez dela kudeaketa on bat errepikatu du eta lau urtetan ez dela lurzoru metro koadro bat ere erosi azaldu du, eta horrez gain, inbertsioak ez direla aurrez ikusitako epeen barruan egiten ari adierazi du.

Etxebarria jaunak entitate baten egoera ekonomikoak, denbora tarte batean zehar aztertuta, gaizki kudeatuta egonez gero, zorpeko egoera bat sortuko lukeela azaldu du, eta Getxoko Udalaren egoera, ekonomiaren ikuspuntutik, arrakastatsua dela, eta entitate finantzarioek ere berresten dutela adierazi du. Gauzatutako obra eta inbertsioei dagokienez, biztanleek kalean egon diren aldaketak benetan ikusten dituztela uste du baita ekintzak baloratzen badakitela ere.

Urkiza jaunak parte hartu du 2006. urtean Getxoko Udalak kanpoko azterketa zorrotz bat pasatu ondoren, zilarrezko "Q"-a lortu duela esanez, eta

Gobierno lo que hace es reservar presupuestariamente por si sucede la ocasión.

El Sr. Andrade se afirma en que la liquidación presupuestaria refleja la política del equipo de Gobierno, y por tanto una crítica a la liquidación es una crítica a la gestión política del equipo de Gobierno. Respecto al comercio manifiesta que la postura del Partido Popular no es que no se cierren si no que se abran y que se cree riqueza comercial, y que por eso el grupo Popular ha presentado en muchas ocasiones medidas de apoyo al comercio, que han sido rechazadas por el equipo de Gobierno. Insiste en que dejar de recaudar ocho millones de euros no es una buena gestión y que en cuatro años no se ha comprado un metro cuadrado de suelo, además de que las inversiones no se vienen realizado en los plazos previstos.

El Sr. Etxebarria indica que la situación Económica de una entidad, examinada a lo largo de un periodo de tiempo, si está mal gestionada generaría una situación de endeudamiento, mientras que en el Ayuntamiento de Getxo la situación, desde un punto de vista económico, es boyante, y así lo ratifican también las entidades financieras. Respecto a las obras e inversiones ejecutadas estima que los vecinos ven realmente los cambios que se han dado en la calle y saben valorar las actuaciones.

Interviene el Sr. Urkiza para recordar que el Ayuntamiento de Getxo en el año 2006, previo un estricto examen externo, ha sido merecedor de la "Q"

hori lortu duen Euskal Autonomia Elkarteko lehenengo udalerrria eta Europako laugarren udalerrria dela agertu du.

Eztabaida bukatu ondoren, eta,

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da:

2006ko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa onesteko Alkatetza-Udalburutzaren 2007. urteko martxoaren 5eko 1.301 zenbakidun dekretuaren jakitun gelditzea.

**46.- IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA, S.A. ENPRESAREN FAKTURAREN OBLIGAZIOA ETA ORDAINKETA AITORTZEA, GOBELA KIROLDEGIKO OBRAREN ZUZENDARITZA LANENGATIK.**

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak aurkeztutako onespena kudeaketa txarraren adibide dela adierazi du, nahiz eta zilarrezko "Q"-a jaso den, eta Gobelako obra %20 hazi zela eta 2005ean aurkeztu zen faktura horren ondoriozkoa izan zela eta zenbait desadostasun tekniko zirela medio, dirudienez, orain arte ezin izan dela horren onespena ahalbidetu adierazi du, eta kudeaketa txar nabarmen horren ondorioz, talde Popularra abstenitu egingo dela aditzera eman du.

Etxebarria jaunak parte hartu du obra ez zela %20 hazi, aurrekontua aurrez ikusi ez ziren kontu batzuei

de Plata, siendo el único municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el cuarto municipio de Europa.

Finalizado el debate, y,

A propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó:

Quedar enterados del Decreto de la Alcaldía-Presidencia nº 1.301, de 5 de marzo de 2007, de aprobación de la Liquidación del Presupuesto General 2006.

**46º.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIÓN Y ABONO DE FACTURA DE LA EMPRESA IDOM INGENIERÍA Y CONSULTORÍA, S.A. POR LABORES DE DIRECCIÓN DE OBRA DEL POLIDEPORTIVO GOBELA.**

Tras darse lectura a la propuesta, el Sr. Andrade indica que la aprobación que se presenta en un ejemplo de la mala gestión, pese a haber obtenido la "Q" de Plata, y que la obra de Gobela se incrementó en un 20% y de ahí deriva la factura que se presentó el año 2005 y que por discrepancias técnicas, al parecer, hasta ahora no se ha posibilitado su aprobación, y que ante esta evidencia de mala gestión el grupo Popular se va a abstener.

Interviene el Sr. Etxebarria para indicar que la obra no se incrementó en un 20% si no que resultó que las ampliaciones



erantzuteko eta instalazio berrientzat zabaldu zela adierazteko. 3,5 milioi euroko aurrekontua daukan obra baten barruan, azken erremateen arazoak direla eta atxikita egon den 48.000 euroko faktura bat ez zaiola esanguratsua iruditzen esanez bukatu du.

Andrade jaunak ez dela fakturaren zenbatekoari buruz eztabaidatzen ari adierazi du, Gobernuaren taldearen kudeaketa ari dela eztabaidatzen esan du eta Gobernuaren taldeak funtsezko gai batzuk aurrekontuan sartu gabe proiektu bat egin zuela azaldu du. Aurrekontuan sartu gabe utzitako funtsezko gaien artean instalazio berria eraikitzeke beharrezkoak ziren eraispenak eta proiektua garestitu zuten beste kontu batzuk aipatu ditu, eta Gobela, oraindik konpondu gabe dauden arazoak daudela adierazi du.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: PNV, EA eta EB/B-ren 13 boto alde, eta PP eta PSE-EE-ren 11 abstentzio.

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA, S.A. enpresaren VE051C0089 zenbakidun faktura atzeratuaren gastuaren obligazioa eta ordainketa aitortzea (48.080,97 euro). Aipatutako faktura Gobela Kiroldagiko obraren zuzendaritza lanei dagokie.

del presupuesto se realizaron para acometer cuestiones no previstas y nuevas instalaciones. Finaliza manifestando que una factura de 48.000 euros que ha estado retenida por problemas de remates finales dentro de un presupuesto de obra de 3,5 millones de euros, no le parece significativa.

El Sr. Andrade dice que no discute el importe de la factura sino la gestión del equipo de Gobierno y que el equipo de Gobierno hizo un proyecto en el que dejó de presupuestar cuestiones fundamentales como los derribos necesarios para la construcción de la nueva instalación y otras cuestiones que encarecieron el proyecto y que todavía aún existen problemas en Gobela no resueltos.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 11 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Reconocer la obligación del gasto y el pago de la factura atrasada nº VE051C0089 de la Empresa IDOM INGENIERIA Y CONSULTORIA, S.A., por importe de 48.080,97 Euros correspondiente a las Labores de Dirección de Obra del Polideportivo Gobela.

47.- EUSKAL HERRIKO

47º.- RECONOCIMIENTO DE

UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD  
DEL PAÍS VASCO IZENEKOAREN  
F0501622 ZENBAKIDUN  
FAKTURAREN OBLIGAZIOA ETA  
ORDAINKETA AITORTZEA.  
FAKTURA HORI GETXOKO  
UDALAREN FUNTZIONARIOEN  
HAUTAKETA-PROZESURAKO  
GALDE-SORTAK EGITEKO DA.

OBLIGACIÓN Y ABONO DE LA  
FACTURA NÚMERO F0501622 DE LA  
EUSKAL HERRIKO  
UNIBERTSITATEA/UNIVERSIDAD  
DEL PAÍS VASCO EN CONCEPTO  
DE REALIZACIÓN DE  
CUESTIONARIOS PARA EL  
PROCESO DE SELECCIÓN DE  
FUNCIONARIOS AYUNTAMIENTO  
DE GETXO.

Proposamena irakurri ondoren, Andrade jaunak parte hartu du faktura kudeaketa txarraren beste adibide bat dela adierazteko, izan ere, 2005etik faktura hori ordaintzeke egon da, dirudienez, aipatutako faktura galdu baitzen.

Tras darse lectura a la propuesta interviene el Sr. Andrade para indicar que la factura es otro ejemplo de la mala gestión ya que desde el 2005 la factura ha estado pendiente de pago ya que al parecer se extravió dicha factura.

Mora andreak Alkateari faktura EHUko zein Fakultateri dagokion galdetu dio.

La Sra. Mora pregunta al Alcalde a qué Facultad de la UPV corresponde la factura.

Alkate jaunak informazio hori jakinarazia izango dela erantzun du.

El Sr. Alcalde indica que dicha información le será facilitada.

Etxebarria jaunak parte hartu du Ogasuneko Batzordean jada azaldu zuela, eta une hartan talde Popularrak ez zuela ezer esan adierazteko, eta orain asmo txarrez han emandako azalpena nahasten ari dela esan du, izan ere, faktura jaso izana ez egiaztatzean, Udalak EHUari faktura bat helaraz zezan eskatu zion, eta ondorioz, atzerapena ezin zaio udaletxearen kudeaketari egotzi.

Interviene el Sr. Etxebarria para indicar que ya explicó en la Comisión de Hacienda, y en ese moment el grupo Popular no dijo nada, y que ahora con mala fe tergiversa la explicación allí dada, ya que lo que ha ocurrido es que ante la no constatación de recepción de la factura, por parte del Ayuntamiento se requirió a la UPV para que remitiera una factura y que el retraso, por tanto, no es achacable a la gestión municipal.

Andrade jaunak Batzordean faktura aurkeztua izan zela esan zutela eta 2005. urtetik ordaindu gabe zegoela adierazi du.

El Sr. Andrade indica que en la Comisión se dijo que se había presentado la factura y que desde el 2005 estaba sin pagar.

Mora andreak parte hartu du, Udala eta Euskal Herriko Unibertsitatea erakunde publikoak direnez, diru hori nola

Interviene la Sra. Mora para insistir en que al tratarse de instituciones públicas, tanto el Ayuntamiento como la

kudeatzen den jakitea garrantzitsua dela esateko.

Etxebarria jaunak parte hartu du zilarrezko "Q"-a lortu izana datu esanguratsua dela adierazteko, eta aditu independenteek bermatzen duten azterketa bat dela eta aurkeztutako fakturak horri kontrajartzea garrantzirik gabekoa iruditzen zaiola esan du.

Andrade jaunak talde Popularrak zilarrezko "Q"-a lortu izana ez duela zalantzan jartzen esan du, Gobernuaren kudeaketa txarra kritikatzin ari dela adierazi du.

Almansa jaunak parte hartu du Udalak lortu duen zilarrezko "Q"-a baloratu behar dela, eta langile guztien ahaleginari Ester lortu dela esateko, eta horien artean Kalitatearen Alorreko Arduraduna nabarmenduko lukeela adierazi du.

Etxebarria jaunak parte hartu du Udala osatzen duten kide guztien izenean bai udal korporazioko kideen izenean, bai Udaleko langileenean, Almansa jaunaren parte hartzea eskertzeko, eta talde Popularrari zilarrezko "Q"-a Udaleko korporazioko kideen mailaren gainetik dauden eta udal-kudeaketan adituak diren pertsonen ematen dutela gogorarazi dio.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: PNV, EA eta EB/B-ren 13 boto alde, eta PP eta PSE-EE-ren 11 abstentzio.

Ondorioz, eta Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

Universidad del País Vasco, es importante saber cómo se gestiona ese dinero y a qué destino va.

Interviene el Sr. Etxebarria para indicar que la concesión de la "Q" de Plata es un dato notorio, y que es un examen avalado por expertos independientes y que contraponer a ello las facturas presentadas le parece que no es relevante.

El Sr. Andrade indica que no duda el grupo Popular de la concesión de la "Q" de Plata, si no que critica la mala gestión del equipo de Gobierno.

Interviene el Sr. Almansa para manifestar que hay que dar valor a la "Q" de Plata que ha obtenido el Ayuntamiento, y que se debe a un esfuerzo de todo el conjunto de los trabajadores, entre los que destacaría al Responsable del Área de Calidad.

Interviene el Sr. Etxebarria para agradecer en nombre de todos los componentes del Ayuntamiento, tanto Corporativos como empleados del Ayuntamiento, la Intervención de Almansa, y al grupo Popular le recuerda que la "Q" de Plata la otorgan expertos en gestión municipal de mayor nivel que los corporativos del Ayuntamiento.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 13 votos a favor del PNV, EA y EB/B y 11 abstenciones del PP y PSE-EE.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak emandako F0501622 zenbakidun faktura baimendu, aitortu, agindu eta ordaintzea. Faktura hori 6.933,61 eurokoa da (SEI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO), eta Getxoko Udalaren funtzionarioen hautaketa-prozesuaren galde-sortak egiteko da, galde-sorta horiek, bestalde, Ingurumeneko Teknikariaren plazari dagozkio (600 galdera gaztelaniaz eta euskarazko itzulpena).

Autorizar, reconocer, disponer y abonar la factura nº F0501622, emitida por la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por un importe de 6.933,61 € (SEIS MIL NOVECIENTOS TREINTA Y TRES EUROS Y SESENTA Y UN CÉNTIMOS), en concepto de realización de cuestionarios para el proceso de selección de funcionarios del Ayuntamiento de Getxo - cuestionarios correspondientes a la plaza de Técnico de Medio Ambiente (600 preguntas en castellano y traducción a euskera).

**48.-“GALERIAS DE PUNTA BEGOÑA” IZENeko UDAL HIGIEZINEAN OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUA ERAIKITZEKO ETA USTIATZEKO KONTRATUA ADJUDIKATZEA, HORREN GAINeko LURRAZAL ESKUBIDEA ERATU ETA EMANDA.**

**48º.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE CONSTRUCCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE UN ESTABLECIMIENTO HOTELERO EN EL INMUEBLE MUNICIPAL DENOMINADO “GALERÍAS DE PUNTA BEGOÑA”, MEDIANTE LA CONSTITUCIÓN Y CONCESIÓN DE UN DERECHO DE SUPERFICIE SOBRE EL MISMO.**

Andrade jaunak proposamena irakurri ondoren, Gobernuaren taldea zoriondu du, proposamenak Galerías de Punta Begoña-ren egoerari irtenbidea ematen baitio, baina talde Popularra abstenitu egingo dela adierazi du, izan ere, ez dute ez Pleguen osaketaren fasean, ezta Kontratazio Mahaian ere parte hartu.

Tras dar lectura a la propuesta el Sr. Andrade felicita al equipo de Gobierno por que la propuesta da solución a la situación de las Galerías de Punta Begoña, pero que el grupo Popular se va a abstener ya que no han podido participar ni en la fase de elaboración de los Pliegos ni en la Mesa de Contratación.

Almansa jaunak bere garaian talde Sozialista baldintzen agiriaren onespenean abstenitu egin zela eta Kontratazio Mahaian ere ez daudela adierazi du, baina proposamenaren

El Sr. Almansa indica que en su momento el grupo Socialista se abstuvo en la aprobación de los pliegos de condiciones, y que tampoco están en la Mesa de Contratación, pero que va a

alde dagoela azaldu du, izan ere, erabaki garrantzitsua dela, Udalarentzat onura ekarriko duela eta Punta Begoñaren hondatzearen egoera konponduko duela uste baitu.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: PNV, EA, EB/B eta PSE-EE-ren 16 boto alde, eta PP-ren 8 abstentzio.

Ogasun, Ekonomia, Giza Baliabide eta Kontuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengo:

LEHENENGOA: BARCELÓ HOTELS MEDITERRÁNEO, S.L enpresari, I.F.K.: B0796708-6, "GALERIAS DE PUNTA BEGOÑA" IZENENKO UDAL HIGIEZINEAN OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUA ERAIKITZEKO ETA USTIATZEKO kontratua, HORREN GAINENKO LURRAZAL ESKUBIDEA ERATU ETA EMANDA, adjudikatuko zaio, bere eskaintza agertutako hobekuntzak onetsi gabe. Hauek, izatekotan, administrazioko ondorengo prozedurak jarraitu beharko dituzte.

Lurrazaleko eskubideak, gehienez ere, BERROGEITA HAMAR URTEKO (50 urte) iraupena izango du, eta bere eraketatik hasiko da (Jabetza Erregistroan inskribatzen dutenetik) eta 300.000 euroko urteko kanona izango du, 2006. urteari dagokiona. Kanon hau hurrengo urteetako bakoitzaren urtarrilaren 1ean eguneratuko da, hau da, 2007. urteko urtarrilaren 1ean, eta berdin hurrengoetan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indizearekin bat etorritik. Eguneratuzetik ateratzen den zenbatekoa hilero ordainduko da

favor por considerar que es una decisión importante y beneficiosa para el Ayuntamiento y que van a resolver la actual situación de deterioro de Punta Begoña.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor del PNV, EA, EB/B y PSE-EE y 8 abstenciones del PP.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Hacienda, Economía, Recursos Humanos y Cuentas, se acordó por mayoría:

PRIMERO: Adjudicar a BARCELÓ HOTELS MEDITERRÁNEO, S.L, con C.I.F: B0796708-6 el contrato de CONSTRUCCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE UN ESTABLECIMIENTO HOTELERO EN EL INMUEBLE MUNICIPAL DENOMINADO GALERÍAS DE PUNTA BEGOÑA, MEDIANTE LA CONSTITUCIÓN Y CONCESIÓN DE UN DERECHO DE SUPERFICIE SOBRE EL MISMO, sin aceptación de las mejoras planteadas en su oferta, que habrán de ser objeto, en su caso, de posteriores procedimientos administrativos.

El derecho de superficie tendrá una duración máxima de CINCUENTA AÑOS (50 años) a comenzar desde su constitución (inscripción en el Registro de la Propiedad) y con un canon anual de 300.000 euros correspondiente al año 2006. Este canon se actualizará el día 1 de enero de cada uno de los años siguientes, es decir, al 1 de enero del año 2007 y así sucesivamente, conforme al Índice de Precios al Consumo de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El importe resultante de la actualización se abonará en doceavas partes mensualmente. La actualización

hamabirenetan. Adjudikaziodunak eguneratzea eskatu beharko du urte bakoitzeko lehenengo hilean, KPIren gehikuntza ezagututakoan.

Adjudikaziodunak bi (2) urteko gabealdia izango du, Lurrazaleko Eskubidea Jabetza Erregistroan inskribatzen denetik zenbatuta. Epe hori bukatutako, aplikatu beharreko kanona baldintza honetan ezarritakoarekin bat etorritik kalkulatu da.

BARCELÓ HOTELS  
MEDITERRÁNEO, S.L. enpresak, LAU HILABETEKO epearen barruan, kontratua sinatu ondoko egunetik aurrera zenbatuta, eraikuntzako proiektu osoak aurkeztu beharko ditu, dagokion Elkargoak onetsita, Obren Udal Lizentziaren beharrezko eskabidearekin batera.

Aurkeztutako eraikuntzaren behin betiko proiektua Aldundiaren Ondare Zerbitzuaren aurrean izapidetuko da, eta aldeko txostena eskuratu beharko du. Ondoren, Udal Zerbitzu Teknikoek berrikusiko dute.

Gehienez ere, HILABETEKO epearen barruan, BARCELO enpresari obren lizentzia emateko eta proiektua onesteko erabakia jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta, eta Segurtasun eta Osasuneko Plana onetsi baino lehenago, obren zuinketa egingo da. Zuinketako Aktaren egunetik aurrera, obrak burutzeko epea zenbatzen hasiko da, eta berau ezin da HOGEITA LAU HILABETE baino handiagoa izan.

HILABETEKO epearen barruan, obren lizentziaren emakida jakinarazten denetik aurrera zenbatuta, lurrazaleko

deberá solicitarla el adjudicatario durante el primer mes de cada año, una vez conocido el dato del incremento del IPC.

El adjudicatario disfrutará de un periodo de carencia de dos (2) años, contado a partir de la inscripción en el Registro de la Propiedad del Derecho de Superficie. Una vez transcurrido este plazo el canon aplicable se calculará de acuerdo con lo establecido en esta cláusula.

BARCELÓ HOTELS  
MEDITERRÁNEO, S.L. habrá de presentar en el plazo de CUATRO MESES, contado a partir del día siguiente a la firma de este contrato, los proyectos completos de construcción, visados en el Colegio correspondiente, junto con la preceptiva solicitud de Licencia municipal de Obras.

El proyecto definitivo de construcción presentado se tramitará ante el Servicio de Patrimonio de la Diputación, debiendo obtener un informe favorable. Posteriormente, será revisado por los Servicios Técnicos Municipales.

En un plazo no superior a UN MES, contado a partir de aquel en que se notifique a BARCELÓ el acuerdo de concesión de la licencia de obras y de aprobación del proyecto, y previa aprobación del Plan de Seguridad y Salud, se procederá a efectuar el replanteo de las obras. A partir de la fecha del Acta de Replanteo comenzará a computarse el plazo de ejecución de las obras que no podrá superar los VEINTICUATRO MESES de duración.

En el plazo de UN MES contado a partir de la notificación de la concesión de la licencia de obras deberá

eskubidearen eskritura formalizatu beharko da.

formalizarse la escritura del derecho de superficie.

Adjudikazioa egin da hurrengo puntuazioan oinarriturik:

La adjudicación se fundamenta en la siguiente puntuación:

ENPRESA LIZITATZAILEAK EMPRESAS LICITADORAS	BALORAZIO EKONOMIKOA VALORACION ECONOMICA	BALORAZIO TEKNIKO VALORACION TECNICA	PUNTU AK GUZTI RA TOTAL PUNTOS
BARCELO HOTELS MEDITERRANEO, S.L.	0	38	38

**BIGARRENA:** Erabaki hau adjudikaziodunari jakinaraziko zaio, EGUTEGIKO HAMABOST EGUNEKO epean, erabaki honen jakinarazpena jasotzen duenetik, Udaleko Diruzaintzan (Foruen kaleko 1.an) behin betiko bermea jar dezan, 8.640.000,00 eurokoa.

**SEGUNDO:** Notificar este acuerdo al adjudicatario a efectos de que en el plazo de QUINCE DÍAS NATURALES, a partir del recibo de la notificación del presente acuerdo, proceda a constituir en la Tesorería Municipal, sita en la calle Fueros nº 1, la garantía definitiva por importe de 8.640.000,00 euros.

Gero, adjudikaziodun enpresaren legezko ordezkariak (edo horrelakorik ez badago, ahalordedunak) Ondare, Kontratazio eta Erosketa Unitatera etorri beharko du (Basagoiti Etorbideko 20.ean), administrazio kontratu egokia formalizatzeko. Ordain-gutunaren fotokopia aurkeztu behar du, Udaleko Diruzaintzan behin betiko bermea egin duela frogatzen duena.

Seguidamente, el representante legal de la empresa adjudicataria, o en su defecto, persona debidamente apoderada, deberá personarse en la Unidad de Patrimonio, Contratación y Compras sita en Avda. Basagoiti 20, para formalizar el correspondiente contrato administrativo, debiendo acompañar fotocopia de la carta de pago que acredite la constitución de la garantía definitiva en Tesorería Municipal.

**HIRUGARRENA:** BARCELÓ HOTELS MEDITERRÁNEO, S.L.k eginiko behin-behineko abala itzultzea, behin betiko berme hori egindakoan.

**TERCERO:** Proceder a la devolución del aval provisional constituido por BARCELÓ HOTELS MEDITERRÁNEO, S.L una vez que haya constituido la mencionada garantía definitiva.

**LAUGARRENA:** Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetuko zaio kontratu honi buruz beharrezko diren ebazpen

**CUARTO:** Delegar en la Junta de Gobierno Local la competencia para dictar cuantas resoluciones sean

guztiak emateko eskumena.

precisas en relación con el presente contrato.

### LEHENDAKARITZA

### PRESIDENCIA

#### 49.- UDAL BATZARRA IZENDATZEA, 2007KO TOKIKO HAUTESKUNDEETARAKO HAUTESKUNDE-MAHAIEN KIDEEN ZOZKETA EGITEKO HELBURUZ.

#### 49º.- DESIGNACIÓN DE UNA JUNTA MUNICIPAL CON OBJETO DE EFECTUAR EL SORTEO DE MIEMBROS DE MESAS ELECTORALES PARA LAS ELECCIONES LOCALES 2007.

Lehendakaritzako Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da aho batez:

A propuesta de la Comisión de Presidencia, se acordó por unanimidad:

Aurtengo datorren apirilaren 25ean (asteazkena), goizeko 10.15ean, Hauteskunde-Mahaietako kideen zozketa egiteko helburuz, Udal honetan dauden Talde Politikoetako bakoitzaren korporaziokide batek osatutako Udal Batzarra izendatzea:

Designar, con objeto de celebrar el próximo día 25 de abril (miércoles), del año en curso, a las 10:15 horas, el sorteo de Miembros de las Mesas Electorales, una Junta Municipal, compuesta por un Corporativo de cada uno de los Grupos Políticos existentes en este Ayuntamiento:

Lehendakaria: Imanol Landa Jáuregui jn. (E.A.-J.-P.-N.-V.).

Presidente: D. Imanol Landa Jáuregui (E.A.-J.-P.-N.-V.).

Kideak:

Vocales:

Jesús Toca Toña jn. (PP).  
Luis Almansa Rubio jn. (PSE-EE).  
Fernando Burzako Butron jn. (E.A.).  
Iñaki Urkiza Arana jn. (EB/B).

D. Jesús Toca Toña (PP).  
D. Luis Almansa Rubio (PSE-EE).  
D. Fernando Burzako Butron (E.A.).  
D. Iñaki Urkiza Arana (EB/B).

Idazkaria: Rosa Carrera Zúñiga and.

Secretaria: D<sup>a</sup> Rosa Carrera Zúñiga.

Izendatutako zinegotziak Talde Politiko bereko beste batzuek ordezkatu ahal izango dituzte, eta aipatutako egun eta ordurako deituta daude.

Los Concejales designados podrán ser sustituidos por otros del mismo Grupo Político, y quedan citados para el día y hora referidos.



Hauteskunde Prozesuaren ondorioz dauden langileriako gastuak ordaintzeko, aurreko hauteskundeetan erabilitako irizpide edo baremo berbera aplikatuko da, berau eguneratutakoan.

Los gastos de personal que resulten como consecuencia del Proceso Electoral, se abonarán aplicando el mismo criterio o baremo que en las Elecciones anteriores, actualizado.

**GIZARTE ZERBITZUAK,  
ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA  
PLANEAMENDUA**

**SERVICIOS SOCIALES, VIVIENDA  
Y PLANEAMIENTO URBANÍSTICO**

**50.- HIRIGINTZA ETA UDAL  
HARREMANEN FORU SAILAREN  
211/07 FORU AGINDUAREN BERRI  
EMATEA, GHAPoaren ALDAKETA  
ZEHATZA BEHIN BETIKO  
ONETSIZ, 33-“FADURA-I” ALDEAN  
IRAKASKUNTZAKO  
ERABILERARAKO LUR-ZATIRAKO.**

**50°.- DACIÓN DE CUENTA DE LA  
ORDEN FORAL N° 211/07 DEL  
DEPARTAMENTO FORAL DE  
RELACIONES MUNICIPALES Y  
URBANISMO, APROBANDO  
DEFINITIVAMENTE LA  
MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL  
PGOUG PARA LA PARCELA DE  
USO DOCENTE EN EL ÁREA N° 33-  
“FADURA-I”.**

Gizarte Zerbitzu, Etxebizitza eta Hiri Plangintza Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

A propuesta de la Comisión de Servicios Sociales, Vivienda y Planeamiento Urbanístico, se acordó:

Aldundiko Hirigintza eta Udal Harreman Sailaren otsailaren 8ko 211/2007 Foru Aginduaren edukiaren jakitun geratzea. Beraren bidez behin betiko onetsi zen Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, 33-“Fadura-I” aldean irakaskuntza erabilerako lur-zatirako.

Quedar enterados del contenido de la Orden Foral nº 211/2007, de 8 de Febrero, del Departamento Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo, por la que se aprueba definitivamente la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para la parcela de uso docente en el Área nº 33-“Fadura-I”.

**51.- HIRIGINTZA ETA UDAL  
HARREMANEN FORU SAILAREN  
212/07 FORU AGINDUAREN BERRI**

**51°.- DACIÓN DE CUENTA DE LA  
ORDEN FORAL N° 212/07 DEL  
DEPARTAMENTO FORAL DE**

EMATEA, GHAPoaren ALDAKETA  
ZEHATZA BEHIN BETIKO  
ONETSIZ, 22-“BILLAMONTE”  
ALDEAN, 14. ETXADIA.

Gizarte Zerbitzu, Etxebizitza eta Hiri Plangintza Batzordeak proposatuta, hauxe erabaki da:

Aldundiko Hirigintza eta Udal Harreman Sailaren otsailaren 8ko 212/2007 Foru Aginduaren edukiaren jakitun geratzea. Beraren bidez behin betiko onetsi zen Getxoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, 22-“Billamonte” aldean, 14. etxadian.

HIRIGINTZA, OBRA ETA  
ZERBITZUAK

Rafael Moreno zinegotzia batzarrera sartu da.

52.- MARTIKOENA KALEKO 13.EAN  
DAGOEN ERABILERA PUBLIKOKO  
ESPazio LIBREAREN ETA  
OINEZKOEN EREMU ETA  
PASEALEKUEN TOKIKO  
SISTEMAREN BURUTZAPENAK  
UKITURIKO ONDASUN ETA  
ESKUBIDEEN NAHITAEZKO  
DESJABETZEKO ESPEDIENTEA  
HASTEAN.

RELACIONES MUNICIPALES Y  
URBANISMO, APROBANDO  
DEFINITIVAMENTE LA  
MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL  
PGOUG EN EL ÁREA N° 22-  
“VILLAMONTE”, MANZANA N° 14.

A propuesta de la Comisión de Servicios Sociales, Vivienda y Planeamiento Urbanístico, se acordó:

Quedar enterados del contenido de la Orden Foral nº 212/2007, de 8 de Febrero, del Departamento Foral de Relaciones Municipales y Urbanismo, por la que se aprueba definitivamente la Modificación Puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo en el Área nº 22-“Villamonte”, manzana nº 14.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS

Se incorpora a la sesión el Concejál Rafael Moreno.

52°.- INICIO DE EXPEDIENTE PARA  
LA EXPROPIACIÓN FORZOSA DE  
LOS BIENES Y DERECHOS  
AFECTADOS POR LA EJECUCIÓN  
DEL SISTEMA LOCAL DE ESPACIO  
LIBRE DE USO PÚBLICO Y DE  
ÁREAS Y PASEOS PEATONALES,  
SITO EN CALLE MARTIKOENA N°  
13

Proposamena irakurri ondoren, Toca jaunak parte hartu du talde Popularra abstenitu egingo dela jakinarazteko, baina ez da abstenituko jabetza kentzearen kontra egoteagatik, proposamena publikoaren aurrean jartzeko garaian alegazioak aurkeztuko dituzten ala ez ikusteko gaia sakonago aztertuko dutelako baizik.

Proposamena bozkatu da eta honako emaitza hau lortu da: PNV, EA, EB/B eta PSE-EE-ren 16 boto alde, eta PP-ren 9 abstentzio.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Batzordeak proposatuta, honakoa erabaki da gehiengoz:

LEHENENGOA.- Martikoena kaleko 13.ean dagoen erabilera publikoko espazio librearen eta oinezkoen eremu eta pasealekuaren tokiko sistemaren burutzapenak ukituriko ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeko izapideak hastea, obren onura publikoaren deklarazioa eta desjabetzearen xedeez edo zortasunen ezarpenak ukituriko lurrak eta gainerako ondasunak eta eskubideak okupatzeko beharra inplizitu dagoela ulertuta, Lurraren eta Balorazioen Araubideari buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 33. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 176. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Aipatutako Tokiko Sistema horren burutzapenak ukituriko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakakoa, jarraian zerrendatuta:

Tras darse lectura a la propuesta, interviene el Sr. Toca para manifestar que el grupo Popular se va a abstener, no porque esté en contra de la expropiación, si no porque van a estudiar el tema más a fondo para ver si presentan alegaciones en el plazo de exposición al público.

Sometida la propuesta a votación, obtiene el siguiente resultado: 16 votos a favor del PNV, EA, EB/B y PSE-EE y 9 abstenciones del PP.

En consecuencia, y a propuesta de la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, se acordó por mayoría:

PRIMERO.- Iniciar los trámites para la expropiación forzosa de los bienes y derechos afectados por la ejecución del Sistema Local de Espacio Libre de Uso Público y de Áreas y Paseos Peatonales, sito en C/ Martikoena nº 13, entendiéndose implícita la declaración de utilidad pública de las obras y la necesidad de la ocupación de los terrenos y demás bienes y derechos afectados a los fines de expropiación o imposición de servidumbres, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 33 de la Ley 6/1998, de Régimen del Suelo y Valoraciones, y en el artículo 176 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

SEGUNDO.- Aprobar la relación concreta e individualizada de bienes y derechos afectados por la ejecución del mencionado Sistema Local, y que a continuación se relacionan:

TITULARRA(K)	FINKAREN	DESKRIBAPENA	KATASTROKO	ERREGISTROKO
--------------	----------	--------------	------------	--------------

TITULAR / RES	DESCRIPCIÓN DE LA FINCA	DATUAK DATOS CATASTRALES	DATUAK DATOS REGISTRALES
1/3 LUISA SERTUCHA LEARRA AND. (JAVIER ODRIOZOLA SERTUCHA JN., ROBERTO ODRIOZOLA Y SERTUCHA JN.)  María Goiri kalea 14 3. D 48990 Getxo	“Planta berriko etxe eraikia, Sertucha deitua, zenbakirik gabe Getxoko elizateko Algortako auzuneko Alanguetas izeneko tokian. Ehun eta hamabost metroko azalera du, eta beheko solairuak, solairu nagusiak etabigarren solairuak osatuta dago, horietako bakoitza bost logelak, sukaldeak, jantokiak eta komunak osatuta egonik; bere eraikuntzan harlangaitz-horma eta adreilua ditu, egur arrunta eta teila lauko estalkia; aurrealdean edo ate nagusian ezkerretik eta eskuinetik sartuta eraikita dagoen gainerako lursailarekin eta atzekaldean Dionisio Salsidua jaunaren jaraunsleen jabetzarekin. Inguratzen duen lursaila bere baratzera zuzentzen da, hamar metro eta hamasei dezimetro karratu neurtzen ditu, horrela, etxe eta lursailak finka bakarra osatzen dute, hurrengo mugak dituen: iparraldean eta mendebaldean edo ezkerrean eta bizkarrean Dionisio Salsidua jaunaren jaraunsleen lurrekin; hego edo aurrealdean, Juan Learra jaunaren lurrekin eta, ekialde edo eskuinean, ur biltegi doan kalearekin.”	N 9837534 E N 9837535 M N 9837536 U U 0088864 P N 9837537 F	(Hasierako finka) Bilboko 9. Jabetza Erregistroan inskribatuta, 15 liburukiko 175. liburuan, 219. orrian, 12.930 finka, 1. inskripzioa.  (Finca Inicial) Inscrita en el Registro de la Propiedad de Bilbao nº 9 al Tomo 15 Libro 175, folio 219, finca 12.930 inscripción 1ª
